



INGURUMEN IRIZPIDEAK EROSKETEETAN TXERTATZEKO LABURPEN-FITXA:

LANEKO ARROPA

Argitalpen-data: 2013

EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA


Landutako dokumentua, ingurumen irizpideak erakunde pribatu eta publikoen erosketa eta kontratazioetan txertatzeko erraztasuna eta zabalkuntza sustatzen duten dokumentu bilduma baten barne hartzen da.

Eskuliburu honen bidez, argibide argiak eta praktikoak eman nahi dira, erosketa eta kontratazio publiko berdearekin lotutako helburu guztiak ahalik eta modu errazenean eta pausoz pauso landu ahal izateko. Horrez gain, etiketa nagusiak berrikusten dira, ingurumenean eragin txikiagoa duten produktu edo zerbitzuak identifikatzen dituztenak. Azkenik, erosketa eta kontratazio prozesuko une bakoitzerako jarraibideak ezartzen dira, prozesua modu arrakastatsuan bukatu dadin.

EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA Eusko Jaurlaritzak, Ihobe Ingurumen Kudeaketarako Sozietate Publikoaren bitartez, burututako laguntza-tresna garrantzitsuena da.

Eskuliburu honek, administrazio publikoko zail guztietan erosketa eta kontratazio publiko berdea zabaltzeko beharrezkoa den informazioa eskaintzen du.

Argitalpenaren testu osoa eskuragarri dago www.ihobe.eus webgunean.





GURE ERABAKIA:

LANEKO ARROPA INGURUMEN-IRIZPIDEAK ERABILIZ EROSTEA

Erakunde publikoek eta enpresek osatzen dute laneko uniforme eta oinetakoen merkatu osoa. Hortaz, sektore horretan ingurumen-irizpideak sartzeak inpaktu positiboa izango du produktu horiek ekoizteko moduan.

Nola egin? Ehun-gaiak eta, zehazki, laneko oinetakoak¹ erostean ingurumen-irizpideak nola txertatu azaltzen da fitxa honetan; helburua da horien ekoizpenak dituen inpaktu negatiboak murriztea.

¹ OHARRA: ehun-gaien beste kategoria batzuk —hala nola laneko oinetakoak, barrualdeko arropa eta ekitaldietarako ehun-osagarriak— erosi eta kontratatzeke irizpideak kontsultatu daitezke dagozkien laburpen-fitxetan.



ZER JAKIN BEHAR DUGUN

Inguruneari errespetua dion laneko arropa erosiz, ahalik eta gehien murrizten dira horien fabrikazioak eta erabilpenak eragiten dituen ingurumen-inpaktu negatiboak. Horretarako, hona hemen ideia aipagarri batzuk:

Zenbait kontzeptu nagusi

Zer estrategia erabili behar da laneko arropa erostean, erabiltzean eta botatzean ingurumen-inpaktua murrizteko?

1. Jantzien balio-bizitza ahalik eta gehien luzatzea, erosteko beharra murrizteko.
2. Erosten diren produktuen aniztasuna murriztea, ahal den heinean.
3. Benetako beharrak epe ertain eta luzera balioetsi eta planifikatzea, eskaera handiegirik ez egiteko eta erosketa urgenteak saihesteko.
4. Produktuen ekoizpen-fase bakoitzari lotutako ingurumen-inpaktua murriztea (zuntzen jatorritik hasi eta prozesuan erabilitako substantzia kimikoetaraino edo hondakinetaraino).
5. Ekoizpen-fase osoan eta hornitzaile-katean laneko funtsezko printzipioak (Lanaren Nazioarteko Erakundeak —LANE— aitortutakoak) gutxienez errespetatzeko exijitza hornitzaileei, horien herrialdea edozein delarik ere.
6. Erabili gabeko jantzien kudeaketa egokia bermatzea, horiek berrerabiliz edo, erabili ezin badira, horien gaikako bilketa egin eta birziklatuz.

Kontuan hartu beharreko ingurumen- eta teknika-alderdiak. Honako alderdi hauei erreparatu behar diegu:

- Jantzien diseinua, iraupena eta kontserbazioa, horien balio-bizitza luzatzeko.
- Zuntzen fabrikazio-prozesuak (bai zuntz naturalenak —lihoa, kotoia...—, bai sintetikoak).
- Jantzien ekoizpenean, ingurumenarentzat eta gizakiarentzat arriskutsuak eta/edo toxikoak diren substantziak erabiltzea (tintak erabiltzea eta ehunak zuritzea).
- Energia eta ur gehiegi kontsumitzea, eta, horren ondorioz, poluzio-karga handia duten emisioak eta hondakin-urak sortzea lantegietan.
- Enpresa deslokalizatu batzuen lan-baldintzek eragiten dituzten ondorio sozialak.

Zenbait kontzeptu nagusi

Ingurumen-ziurtagiriak: zer ziurtagiri daude eta zer bermatzen dute?

Laneko arroparekin lotutako inpaktuak murrizteko erarik errazena produktu ekoetiketatuak erostea da. Ziurtagiri nagusiak hauek dira:

- Laneko arroparako ekoetiketa ofizialak:

	OEKO-TEX ²	Europako Etiketa Ekologikoa	Beltxarga Zuria
Laneko arropa	●	●	●

- Landare-zuntzetarako ekoetiketa ofizialak. Hauek dira, zuntzen jatorriari dagokionez, horietako bakoitzaren ziurtagiri nagusiak eta gutxieneko zehaztapenak:

Ekoetiketa	Logo ofiziala	Nekazaritza ekologikoko landare-zuntza	Landare-zuntza edo birziklatutako zuntz sintetikoak ³
Europako Etiketa Ekologikoa		Ez du gutxienekorik zehazten.	Ez du gutxieneko edo gehieneko baliorik zehazten.
Beltxarga Zuria		Produktuaren landare-zuntz guztia nekazaritza ekologikoa da.	Ez du gutxieneko edo gehieneko baliorik zehazten.
GOTS (Global Organic Textile Standard)	Organic	Produktuaren zuntz guztien % 95 baino gehiago nekazaritza ekologikoa da.	% 5eraino
	Made with X% organic materials	Produktuaren zuntz guztien % 70 baino gehiago nekazaritza ekologikoa da.	% 10eraino; galtzerdi, elastiko eta kirol-jantzietan, % 25rainokoa izan daiteke.

² Ehungintzaren ekologia testatzeko eta ikertzeko nazioarteko elkartearena.

³ Ehungintza-industriako ebakinetatik, jantzigintzatik edo kontsumitu ondoko hondakinetatik datorren zuntza.

Zenbait kontzeptu nagusi

ORGANIC EXCHANGE	Made with [100%] organically grown cotton		Produktuaren kotoizko ehuna nekazaritza ekologikokoa da % 100ean ⁴	% 0 kotoizko ehunean
	Made with X% organically grown cotton		Kotoizko ehunaren % 5, gutxienez, nekazaritza ekologikokoa da ⁵	Ez du gutxieneko edo gehieneko baliorik zehazten.

- Produktuetarako beste zenbait ingurumen-ziurtagiri:

MADE IN GREEN	GOTS

- Produktuetarako ziurtagiri sozialak:

FLO ⁶	IFAT	MADE IN GREEN	GOTS	OEKO-TEX 100 PLUS ⁷

OHARRA: Made in Green (Espainiako AITEX institutuak sortua), GOTS eta OEKO TEX 100 ziurtagiriek gizarte-irizpideak ere kontuak hartzen dituzte emateko orduan; beraz, produktuaren ingurumen- eta gizarte-irizpideak dira. FLO eta IFAT bidezko merkataritzako ziurtagiriak dira.

⁴ Produktua kotoiaz bakarrik egin bada, % 100 nekazaritza ekologikokoa izan behar da. Produktua zuntz edo material ezberdinez egin bada (adibidez, zapatilen kanpoaldea kotoizkoa izan daiteke, barrualdea poliuretanozkoa eta zola, berriz, gomazkoa), kotoi organikoaren % 100eko adierazlea kotoizko ehunari bakarrik ezarri behar zaio, ez produktu osoari.

⁵ Kasu honetan, nekazaritza ekologikoko kotoi-zuntzez osatuta egon behar du ehunak (= % 5), eta gainerakoa ohiko kotoiaz edo beste zuntz batzuek osatua izan daiteke (artilera, poliesterrea, eta abar).

⁶ Ekitaldietarako ehun-produktuetarako edo osagarrietarako bakarrik balio du, oraingoz.

⁷ Enpresek OEKO TEX 100PLUS marka berezia lortzeko, OEKO TEX 100 arauaren arabera ziurtatuta egon behar dute haiek ekoiztutako gaiak, eta ekoizpen-kate guztiak —hots, gaiaren ekoizpenari lotutako fabrika guztiak— OEKO TEX 1000 arauaren betekizunak erabat betetzen dituztela adierazten duen ziurtagiria aurkeztu behar dute.

Zenbait kontzeptu nagusi

- Enpresentzako ziurtagiri sozialak: taulan jasotzen dira ziurtagiri horietako batzuk; borondatezkoak dira, eta egiaztatzen dute enpresek badituztela tresnak ekoizpen-kate osoan LANEren funtsezko eskubideak errespetatzeko.

OEKO-TEX 1000	SA 8000	FAIR WEAR FOUNDATION



EROSKETATIK HONDAKINEN KUDEAKETARA BITARTEKO BIDEA

Laneko arropa ingurumen-irizpideen arabera erostean, zenbait unetan, eragin eta erabakitzeko ahalmena dugu, erosle eta kontsumitzaile garen aldetik. Zer unetan? Nola izan iraunkor?

ZEIN DIRA GURE BENETAKO BEHARRAK? KONTSUMOA NOLA MURRIZTU?

1. unea. Beharrak

Laneko arroparen beharrak ezagutzeko, honako hauek hartu behar ditugu kontuan:

- Erosketa berriak egiterakoan, aztertu zertarako erabili diren, zergatik ordeztu behar diren eta zer stock dagoen.
- Ordezgutako produktuekin zer prozesu egon den, zertarako erabili diren eta zer tratamendu eman zaien (zenbat berrerabili den jakiteko, batez ere).

Gainera, zenbait jardunbidek gutxiago kontsumitzen lagundu dezakete. Hauek dira gomendio nagusiak:

- Jantzi eta ehunen balio-bizitza ahalik eta gehien luzatzea, erosteko beharra murrizteko. Horretarako, produktuek gutxieneko ezaugarri teknikoak izatea eskatu behar da, kalitateari eta erresistentziari dagokienez. Halaber, horiek egokiro erabili eta zaindu behar dira (lagungarria izan daiteke langileentzat egoki erabiltzeko jarraibideak zehaztea).
- Erosten diren produktuen aniztasuna murriztea, ahal den heinean.
- Ehun eta diseinu neutroak aukeratzea, arropa berehala modatik kanpo geldi ez dadin.
- Benetako beharrak epe ertain eta luzera balioetsi eta planifikatzea, eskaera handiegirik ez giteko eta erosketa urgenteak saihesteko.

ZER ETA NOLA KONTRATATU?

2. unea. Laneko arropa erosi

Behar zehatza jakin ondoren, produktuak erosteko unea dugu. Urrats honetan, ingurumen-irizpide hauek txerta ditzakegu ⁸:

Enpresa fabrikatzaileen hautaketa-irizpide sozialak:

Askotan, banatzaileak kontratatu arren, oinetakoak ekoizteko erabilitako ehunak, arropa egiteko erabilitako beste material batzuk eta arropa bera fabrikatzen duten enpresei LANERen Adierazpenean jasotzen diren printzipioak errespetatzen dituztela egiaztatzeko eska dakieke banatzaileei, ingurumen-ziurtagiriei buruzko ataleko ziurtagirietako baten bidez.

Produktuaren ezaugarriei eta propietateei dagozkien ingurumen-irizpideak:

Ingurumen-eskakizun eta -konpromisoaren arabera, honako hauek balioetsi behar ditugu:

- Eskainitako produktuaren zuntzen portzentaje batek (pisuan) OEKO TEX 100 ziurtagiria izatea.
- Balioetsiko den zuntzen portzentajea (pisuan) duen produktuak ezaugarri hauek izatea:
 - ⇒ Europako Etiketa Ekologikoarekin, Beltxarga Zuriarekin, Made in Green-ekin edo antzeko batekin ziurtatua egotea⁹.
 - ⇒ Birziklatua izatea.
 - ⇒ Naturala eta nekazaritza ekologikoa izatea (fitxa honetako ekoetiketen atalean dauden ziurtagirien arabera).

Erabilpenari eta iraupenari buruzko ingurumen-irizpideak:

Gutxieneko bermea eskatuko da iraupenari dagokionez, eta dagozkion testak erabiliz egiaztatuko da:

- Garbiketan eta lehorketan, produktuen dimentsioen aldaketa-balioek hauek baino txikiagoak izan behar dute (ISO 5077 arauan ezarritako metodoen arabera):
 - ⇒ % 2 (irazkia eta bilbea), gortinetarako eta garbitu daitezkeen azal kengarriko tapizeriarako.
 - ⇒ % 6 (irazkia eta bilbea), ehundutako gainerako produktueterako.
 - ⇒ % 8 (luzera eta zabalera), puntuzko gainerako produktueterako.
 - ⇒ % 8 (luzera eta zabalera), kizkurrerako.

⁸ Gehienetan, ekoetiketa ofizialak ("Zenbait kontzeptu nagusi" atalean aipatuak) dira biderik errazena gomendioak betetzen direla egiaztatzeko.

⁹ Si se quiere ser más exigente, se puede pedir que los tejidos de las prendas o éstas estén certificadas con la Etiqueta Ecológica Europea, el Cisne Nórdico, el Made in Green u otra ecoetiqueta tipo I. No obstante, la oferta en el mercado es mucho menor que de tejidos y productos OEKO TEX 100.

Irizpide hori ez zaie aplikatuko argi eta garbi "lehorreko garbiketa" etiketa edo horren baliokideren bat duten produktuei.

- Koloreen sendotasun-balioak bermatzea, ISO 105 arauan ezarritako balio hauen arabera:
 - ⇒ garbiketan: 3.-4. maila
 - ⇒ izerditzean: 3.-4. maila
 - ⇒ argitan: 4.-5. (gortinetarako eta tapizeriarako)
 - ⇒ igurtzi hezean: 2.-3. maila

Bilgarriei buruzko ingurumen-irizpideak:

Arropa banatzeko zer bilgarri-mota erabiltzen duten azaldu behar dute enpresa hornitzaileek, eta ezaugarri hauek balioetsiko dira:

- Garraiorako bilgarri berrerabilgarriak erabiltzea.
- Ahalik eta bilgarri gutxien erabiltzea.
- Ahalik eta material-mota gutxien erabiltzea; bat baino gehiago erabiliz gero, horiek eskuz bereizi ahal izatea, bereizketa eta birziklatzea bermatzeko.
- Plastiko halogenaturik gabeko materialekin eta material birziklatuarekin (portzentaje altua) eginak egotea (plastikoa edo kartoia).

Irizpide horietatik guztietatik egokienak iruditzen zaizkigunak balioetsi edo exijitu behar ditugu erostean. Uniformeen *leasing* edo *renting* zerbitzua aukeratuz gero, ingurumen-irizpideak ezarri behar dira makinerian, garbigarrietan eta garraioan.

Administrazio batek ezaugarri horiek dituzten produktuak prozedura ireki edo negoziatu bidez kontratatu nahi baditu, Ihobek argitaratutako Kontratatorako eta erosketa publiko berderako eskuliburu praktikoan jaso dira klausula-agirian sartu beharreko irizpide zehatzak (hiru eskakizun-maila daude: oinarrizkoa, aurreratua eta bikaintasun-maila), Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera.

AZKENEKO URRATSA: HONDAKINAK NOLA KUDEATU?

3. unea. Hondakinen kudeaketa

Lehen gomendioa, *berrerabiltzea*. Ehun-gai berriak erosiz gero, ordezkatuena kudeaketa egin behar da (gainera, horietako askoren balio-bizitza ez da amaitu). Beraz, lehen araua da horien berrerabilpena sustatzea, eta, horretarako, bi alternatiba daude:

- Kudeaketa optimizatzea eta ondo dauden produktuak barruan berrerabiltzea, teknikoki horretarako aukera egonez gero.
- Irabazi-asmorik gabeko erakundeei edo gizarteratze-erakundeei uztea, haietan

beharrezko tratamendua emanda berriro merkaturatzeko edo baliabide gutxiko sektore sozialei emateko.

Produktuaren balio-bizitza agortzean, tratamendu egokia ematea:

- Birziklatzea eta tratamendua baimendutako kudeatzaileek egingo dute, batik bat irabazi asmorik gabeko erakundeek edo gizarteratzeko enpresek.



INFORMAZIO GEHIAGO...

Lotura interesgarriak

- www.ihobe.eus webgunean egin dezakezu kontsulta, non erabilgarri baitituzu **Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Eskuliburua** (ekipo informatikoei buruzkoa da atal berezi bat) eta **Produktuaren Ingurumen Etiketen Eskuliburua**.
- Halaber, irizpide horiek betetzen dituzten produktuei eta hornitzaileei buruzko informazioa du lhobek, ezarritako irizpideak betetzen dituzten produktu eta hornitzaile berri guztiei irekita dagoena.
- Bestalde, zuzeneko kontsultaren bat egin nahi izanez gero, lhobe Line telefonora deitu dezakezu: 900 150 864.